

## Kapituluaren gida didaktikoa

### Kamera sortzailea

Hogeigarren mendean zehar, argazkia gure bizitzako egunerokotasunean gauzarik garrantzitsuenetakoa bihurtu da. Albisteak, diseinuak edo gertakariak erakusteko orduan, oinarritzko euskarria da.

Bideo honetan nork bere irudimenari, ideiei eta sentimenduei jarraikiz, argazkiak nola egin erakusten da. Argazki kamera modu sortzailean nola erabili erakustea da bideoaren xedea.

Bukatzeko LANTEGIA atalean irudi anitzeko argazkiak nola egin ikusiko dugu.

#### ***KAMERA SORTZAILEA***

02:43 – XX. a. irudiaren mendea. (SARRERA)

04:27 – Kamera sortzailea.

04:59- Ñabardurak.

07:49- Efektu bereziak.

10:12- Material bereziak.

11:18- Argi gutxiko dekoratuak.

13:37- Beti prest.

15:02- LANTEGIA: Irudi anitzkunak.

#### **LANTEGIA: Irudi anitzkunak**

Atala behar adina bider ikusi. Jarraian, ikasleekin batera, irudi anitzak egiteko eman behar diren urrats guztiak birpasatu ozenki. Ondoren, irudikatu eta marraztu hainbat muntaia eta erabiliko diren irudiak. Muntaietako bat aukeratu eta egin.

Erabiliko dugun materiala:

Erroilu, a mugitzeke hainbat kliska egiteko aukera ematen duen argazki kamera.

Kliska egiteko kablea.

Tripodea.

Diapositibak proiektatzeko gailuak.

Pantaila.

Argazki erroilua argi artifizialerako orekatua.

**Behetiko hartualdia.** Argazki-kamera argazkiaren subjektu nagusia baino beherago kokatuta hartutako argazkia.

**Argi iragazki urdina.** Kolore urdineko iragazkia, argi iturri artifiziala iragaziz argi natural bihurtzeko erabiltzen dena.

**Argi iragazki laranja.** Kolore laranjako iragazkia, argi iturri naturala iragaziz argi artifizial bihurtzeko erabiltzen dena.

**Eguzkitarako pelikula.** Argi naturalez argazkiak egiteko berariaz orekatutako pelikula.

**Barrualdeetarako pelikula.** Argi artifizialez argazkiak egiteko berariaz orekatutako pelikula.

**Goitiko hartualdia.** Argazki kamera argazkiaren subjektu nagusia baino gorago kokatuta hartutako argazkia.

**Gaininpresioa.** Negatibo zati berberean gutxienez bi eszenatoki inpresionatuz lortzen den efektua. Argazkian eszenatokiak bata bestearen gainean agertzen dira.

## LIBURUAK

**La fotografía paso a paso.** Michel Langford.  
H. Blume Ediciones. -Madril- 1995

*Hauxe duzu eskuetan erabiltzeko libururik osoena eta ulerterrazena.*

**Macrofotografía.** W. Kruyt.  
**Retrato creativo.** P. Zeemeijer.  
**Técnica fotográfica.** W. Broekmyn.  
Parramón institutua. -Bartzelona- 1990.

*Hiru liburu hauek, batez ere, praktikoak dira. Eurretan adibide ugari aurkituko dituzu gai bakoitza jorratzeko.*

## Seriea osatzen duten bideoak

- 1.- Argazkilaritzaren oinarriak
- 2.- Argazki kamera
- 3.- Pelikula
- 4.- Esposizioaren kalkulua
- 5.- Irudiaren osagarriak
- 6.- Irudiaren egitura
- 7.- Konposaketaren artea
- 8.- Koloretako irudia
- 9.- Tresneria
- 10.-Argiztapen artifiziala
- 11.-Kamera sortzailea
- 12.-Argazkilaritza digitala

### ekoizlea:

**iadi**

### Banatzaila:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3  
11. bulegoa  
01008-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAK  
ONETSIA

**2003 / 01 / 23**